

San Lorenzo eskola: hezkuntza baino gehiago

1983 urteko

irailaren hasten da San Lorenzo eskolako historia. "Garai horretan, auzoko ume guztiak Teresa Murgan ikasten zuten, bainabertan ez zegoen lekua guztientzat, eta beste eskola bat egin behar zela erabaki zen, Ongarai aldera. San Lorenzoko auzokideek presio itzela egin zuten (grebak, manifestazioak, errepidea moztu...), eta azkenean euren auzoan eskola egitea lortu zuten", diote Loli Gorritik eta Antonio Cidek.

Eraikitako azken eskola publikoa izan zen hau eta bereizgarri ugari ditu. Horien artean ikusgarriena, bere diseinu eta kolorea da. Honek azalpen bat du: "Normalean eskolak Eusko Jaurlaritzak egiten ditu eta Udaletxeek kudeatzen dituzte. Gurea, berriz, Udalako arkitektoak diseinatu zuen. Italiara bidaiatu egin zuen, han gustoko erakina ikusi eta horren kopia hemen ipintzea erabaki zuen, kolore berdinekin".

Hasieran "masifikazio itzela zegoen, 600 ikasle baino gehiago zegoen. Orain, berriz, ez dira 200era heltzen". Horregatik, eta txi-



kien eraikina ez zelako existitzen, klase batzuk 'Almacén del Mueble'ko gaineko solairuan ematen zituzten.

"Gauzak asko aldatu dira ordutik ona -diote biek-. Orain ordenagailuak gela guztietan daude, haur hezkuntzan ere bai, klaseak askoz ere politagoak dira, material gehiago dago, ingelese hasieratik ematen dute umeek... Baina atzerapenak

ere egon dira, jarreretan batez ere, baina hori eskola guztietan pasatzen ari da".

Bere itxura ere kanpotik eta barrutik apur bat aldatu da. Adibidez, jantokia ipintzea erabaki zenean, "hasieran sobran zegoela ematen zuen eta orain umeek bitxandatan bazkaldu behar dute". Gainera, eraikin berria egin zen, kolunpioak ez-tali, traba arkitektonikoak geletara igotzeko ezabatu, barandillak ipini patioaren inguruan eta bere harrizko ohiko bankuak aldatu zituzten. Baina auzokideentzat, betiko eskola izaten jarraitu

du, nortasun berezi batekin.

Patioa zabalik dago beti, eta beti ere umez beterik. "Umeak klasetik irtetzerakoan, hemen geratzen dira -dio Cidek-, hau auzoko plaza da, eta horrek bizitasun handia ematen dio". Auzoko festa bertan egiten da, Erregeen Kabalgata handik irtetzen da, garai batean Santixauetako barrakak ere bertan ipintzen ziren..., beti pil-pilean sartuta egon da eskola.

Kirolari onak

Bereizitasunen artean, eskola kirolari emandako garrantzia dago. Gainontzeko

"Patioa zabalik dago beti eta horrek bizitasuna ematen dio eskolari"

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan zabalitzen dugu

9431 72665

ERMUA



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

eskoletan kirola egiten ez zen bitartean, edo futbolera jolasen bakarrik erakusten zenean, "guk atletismo, eskubalo, futbito, pelota, mendia... egiten hasi ginen eta hemendik Espainako 10 txapel-dun irten dira" dio Cidek. Hiru autobus eramaten zituzten larunbatero txapelketetara eta horren 'errua' Eméritorena da, eskolan egondako irakasle batena eta kirolagatik zuen zaletasunarena. Horrek ere Villalobos eta Vega kirolariari lehenengo pausuak ematen lagundu zien *"nahiz eta lortutako garaipenak, beste pertsona batzuek ostean egindako lanaren emaitza diren"*, azaltzen du Antonio Cidek. Hala eta guztiz ere, Antoniok izan zituen eskola mailako Euskadiko lehen txapel-dunak Ermuan atletismoan, Nuria Piñeiro, Maria Jesús Piñeiro, Margarita...

Cid, Lolirekin batera, hasieratik eskolan egon diren pertsona bakarrak izan dira. Milaka ikasle ikusi dituzte klaseetan eta orain, lehen ikasleak izandakoak, euren seme-alabak ekartzen hasi dira, dio Lolik, eta berak hori ondo daki, auzoan geratu direnak oraindik ere kontrolatzen dituzulako.

Urte askotarako...!

Dorleta Vidal



EGITARAUA

- Maiatzaren 26tik 31ra:

Argazki erakusketa eskolako patioan: 'San Lorenzo, 25 urte. Argazki zahar eta berriak'. 9:00etatik 17:00etara.

- Maiatzaren 29an (osteguna):

Antzerkia Eibarko Unibertsitatean: 'Gaixo tranpatiak' (4. mailako) eta 'San Lorenzo Eskola, 25 urte' (5. eta 6. aila).

- Maiatzaren 30an (ostirala):

Ate irekien eguna: Puzgarriak, tailerrak, ordenadoreak, bideo emanaldiak..., 16:30etik 19:00etara.

- Maiatzaren 31n (larunbata):

10:30-13:00: Olinpiadak auzo guztiarentzat.

15:00-19:00: Puzgarriak.

19:00-20:00: Lunch herrikoia ikasle ohien kantu emanaldiarekin batera.

20:00-22:00: Altuera jauziko erakustaldia.

22:00-23:30: Rock Kontzertua.

24:00-...: Dantzaldia, 'Trio menta'.

- Ekainaren 1an (igandea):

14:00: Antolatzaileentzat bazkaria.



KIROL MEDIKUNTZA

indartu



**ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA**


ERREHABILITAZIO ETA KONSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK

- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16

Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net



PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
 - motorizazioa
 - pertsiana dekoratiboak
 - pertsiana bilgarriak
 - segurtasun pertsianak
 - moskiterak
 - toldoak
- Erakusketa berria: Karabixa, 1
943 17 98 60

Zearreko buelta, 2 • 943 17 66 34 • 630 01 13 41



URRETA

burdindenda

✕ Etxea

✕ Giltzak

✕ Tresneria

✕ Zerrailgintza

✕ Brikolaia

✕ Kit altzariak

✕ Rielak

Beharkelea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA